Getxo
ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA
bizi ezazu

# MED
Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 15
Urtea/Año 2013
Maiatza/Mayo

## Matriculación Curso 2013-14
## Nuevas admisiones

Estos días hemos procedido a la renovación de la matrícula de los que ya estudiáis con nosotros. Si os gusta la experiencia, y pensáis que la Escuela de Música puede sonar más en nuestro municipio, animad a vuestras amigas y amigos a que se matriculen con nosotros para el próximo curso. Vosotros les podéis contar de primera mano lo que hacemos. Pueden, sin duda, informarse en la Escuela de Música y en la página web del Ayuntamiento.

## Musikaldia 2013 en Oñati

La Escuela de Música José de Azpiazu ha sido la encargada de organizar el Musikaldia 2013. En esta onceava edición nos hemos encontrado 2.500 alumnas y alumnos de las Escuelas de Música de nuestra Comunidad. También acudieron invitadas tres Escuelas de Música de Navarra y una de Toledo. En nuestro nombre participó la Banda Txiki (alumnos de 9 a 12 años), quienes dieron una buena muestra del trabajo que han preparado este curso. Nuestros chicos y chicas acudieron muy ilusionados, y quedaron impresionados por el buen ambiente de compañerismo y musical que allí había, comentando que en Oñati, ese día, nadie era "forastero".

Aitor Madina es el director de la Escuela de Música de Oñati, y nos ha ofrecido su valoración para Muska Eskola Digitala. Nos dice que: "A pesar de los tiempos difíciles en los que nos encontramos, a pesar de que la educación musical no tiene el mismo eco que otras actividades, la música sigue siendo un elemento que nos une a todos; niños y mayores, en pequeñas y grandes agrupaciones nos han ofrecido una muestra importante de la música que se ha hecho a lo largo de toda la historia: compositores clásicos, contemporáneos, música clásica, moderna, popular.... inundaron las calles y los diferentes escenarios; La música y el buen ambiente vencieron a la meteorología.

En el Musikaldi volvimos a percibir la importante función social que realizamos las Escuelas de Música, también cuidadoras y difusoras del patrimonio cultural de nuestro pueblo y, además, reafirmamos nuestro convencimiento de que, además de sembrar buenas experiencias en los que sean futuros profesionales de la música, contribuimos a hacernos más grandes como personas".

Desde aquí, nuestra más sincera y cariñosa felicitación a Aitor y a todo su equipo por el Musikaldia 2013.

## Nuestros grupos

*Hemos comentado en numerosas ocasiones la importancia que tiene para nosotros el hacer música en grupo en nuestro Centro, desde el punto de vista formativo para nuestro alumnado, además de ser un buen botón de muestra de lo que somos y hacemos para todos vosotros.*

*En este número de mayo recordamos especialmente las actuaciones realizadas en el mes de abril por varias de nuestras agrupaciones:*



*Los días 26 y 27, nuestros chicos y chicas de la **Orquesta de Cuerda "Andrés Isasi"** viajaron a Asturias. Este curso hemos realizado un intercambio con el Conservatorio de Gijón. Las dos orquestas ofrecieron un programa atractivo el pasado sábado 27, por la mañana, recogiendo numerosas felicitaciones por el trabajo realizado.*

*Nuestro **Coro "Andrés Isasi"**, junto a varios coralistas de la Coral Andra Mari de Gernika y la Agrupación Coral Bleibet de Artziniega, ofrecieron un concierto en la Iglesia de Zamudio. El programa presentado estuvo centrado en el compositor francés Gabriel Fauré. Acompañados al órgano por Miriam Cepeda (organista titular de la Basílica de Begoña) y dirigidos por Imanol Ormaza, interpretaron la Messe Basse, la Cantique de Jean Racine, y la Misa de Requiem. La acogida por parte del público fue muy buena. Van a continuar ofreciendo este recital en el mes de mayo en Bilbao, en tres de sus iglesias emblemáticas: la Basílica de Nuestra Señora de Begoña el próximo 10 de mayo, la Iglesia Residencia de los Padres Jesuitas, el día 17 y el día 25 en la Catedral de Santiago, en el Casco Viejo bilbaíno. Todos los conciertos son a las 20 horas.*

***La Banda de Música y alumnado de txistu de la Escuela de Música** han participado en los actos que la Ikastola San Nikolas ha organizado para celebrar su 50º aniversario. El recital fue ofrecido el pasado viernes, 27 de abril, en la Plaza del Metro de Algorta. La colaboración entre ambos Centros continúa su consolidación, pues este curso también hemos compartido un recital en el mes de diciembre, con motivo del Euskara Eguna. El concierto fue muy entrañable. Al buen hacer de todos se sumó un "algo especial", una implicación afectiva especial, ya que muchos de los componentes de la Banda son exalumnos e incluso alumnos de la Ikastola. La acogida por parte del público fue fantástica; disfrutaron de lo lindo (tuvimos que hacer un bis improvisado, ya que no estaba previsto) y el mal tiempo no pudo con las ganas de participar y celebrar. Es también de destacar la colaboración con los bertsolaris Itxaso y Xabi Paia, que siempre es excepcional, así como la estupenda experiencia con el coro Biotz Alai.*

## Calendario del mes

Mayo

| l | m | x | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

Días festivos
Actividades de la Escuela
Actividades en festivo

## Agenda

### Mayo

**3 de mayo:** Audición de alumnos de contrabajo. A las 18:45, Auditorio de la Escuela de Música.

**4 de mayo:** XI Primaveras Musicales. A las 20:00 en el Auditorio de la Escuela de Música. Entrada, 8 €

**9 de mayo:** Recital de alumnado de txistu. A las 18:30 en Getxo Elkartegia.

**10 de mayo:** Recital del alumnado de Violonchelo en el Auditorio de la Escuela de Música.

**14 de mayo:** Recital de alumnado de flauta. A las 18:30 en Getxo Elkartegia.

**16 de mayo:** Recital de alumnado de clarinete y saxofón. A las 18.30 en Getxo Elkartegia.

**17 de mayo:** Recital del alumnado de Guitarra en el Auditorio de la Escuela de Música.

**18 de mayo:** Recital de Zozoak Abesbatza. A las 20:00 en el Auditorio de la Escuela de Música. Entrada libre.

**21 de mayo:** Recital de alumnado de piano. A las 18:30 en Getxo Elkartegia.

**23 de mayo:** Recital de alumnado de trompa, trompeta, trombón y tuba. A las 18:30 en Getxo Elkartegia.

**24 de mayo:** Recital del alumnado de Violín y Viola en el Auditorio de la Escuela de Música.

**28 de mayo:** Recital de alumnado de piano. A las 18:30 en Getxo Elkartegia.

**29 de mayo:** Recital de adultos. A las 18:30 en Getxo Elkartegia.

**30 de mayo:** Recital de alumnado de piano. A las 18:30 en Getxo Elkartegia.

**31 de mayo:** Recital del alumnado de Percusión en el Auditorio de la Escuela de Música.

Getxo
ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA
bizi ezazu

MED
Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 15
Urtea/Año 2013
Maiatza/Mayo

## 2013-14 ikasturteko Matrikulak Onarpen berriak

Egun hauetan, dagoeneko gurekin ikasten duzuenen matrikulak berritzeari ekin diogu. Esperientzia gustokoa baduzue eta Musika Eskola geure herrian gehiago entzun daitekeela uste baduzue, datorren ikasturterako gurekin matrikulatzera animatu zuen lagunak. Zuek eman ahal diezue egiten dugunaren zuzeneko berri. Musika Eskolan bertan eta Udaletxearen web orrian ere informa daitezke, noski.

## Musikaldia 2013 Oñatin

José de Azpiazu Musika Eskola izan da Musikaldia 2013aren antolaketaz arduratu dena. Hamaikagarren Musikaldi honetan, geure Erkidegoko Musika Eskoletako 2.500 ikasle bildu ginen. Gonbidatu gisa, Nafarroako hiru Musika Eskola eta Toledoko bat ere etorri ziren. Geure izenean, Banda Txikiak (9 eta 12 urte bitarteko ikasleak) hartu zuen parte; aurten egindako lanaren erakusgarri ona eskaini zuten. Geure neska-mutilak ilusio handiz joan ziren eta zirraraturik geldituziren han ikusitako adiskidetasun- eta musika-giroarekin; Oñatin, egun hartan, inor ez zen "arrotza".

Aitor Madina da Oñatiko Musika Eskolako zuzendaria, eta bere iritzia eman digu Muska Eskola Digitala-rentzat. Zera esan digu: "Bizitzen ari garen garaia zaila den arren, musika-hezkuntzak beste jarduera batzuk duten oihartzun bera ez duen arren, musikak denok batzen gaituen gaia izaten jarraitzen du; umeak eta helduak, talde txiki eta handietan, historian zehar egin den musikaren adierazgarri garrantzitsua eskaini dute: musikagile klasikoek, garaikideek, musika klasikoak, modernoak, herrikoiak… kaleak eta agertoki desberdinak bete zituzten; musikak eta giro onak meteorologia garaitu zuten.

Musikaldian, Musika Eskolek betetzen dugun garrantzizko zeregin soziala berriro ere hauteman genuen; geu ere gara geure herriaren ondare kulturalaren zaintzaile eta hedatzaile eta, gainera, musikaren geroko profesionalak izango direnengan esperientzia onak sortuz gain, pertsona gisa handiagoak bihurtzen laguntzen dugularen geure uste osoa berresten dugu".

Hemendik, geure zorionik zintzo eta beroena Aitorri eta bere taldeari, Musikaldia 2013 honengatik.

## Geure taldeak

*Sarritan aipatu izan dugu zein garrantzia duen guretzat geure Zentroan musika taldeka egiteak, gure ikasleen prestakuntzaren ikuspuntutik, zuentzat guztiontzat zer egiten dugun eta zer garen erakusteko adierazgarri ona izateaz gain.*

*Maiatzeko zenbaki honetan, gure taldeetako batzuk apirilan egindako emanaldiak gogoratu nahi ditugu bereziki:*



*26 eta 27an, **"Andrés Isasi" hari-tresnen orkestrako neska-mutilak** Asturiasera joan ziren. Ikasturte honetan, trukea Gijoneko Kontserbatorioarekin antolatu dugu. Bi orkestrek egitarau erakargarria eskaini zuten joan den larunbatean hilak 27, goizez, zorion ugari jaso zituztelarik egindako lanagatik.*

*Geure **"Andrés Isasi" Abesbatza**, Gernikako Andra Mari Abesbatzaren zenbait kiderekin eta Artziniegako Bleibet Elkarte Koralarekin batera, kontzertua eskaini zuten Zamudioko elizan. Aurkeztutako programak, Gabriel Fauré musikagile frantziarra izan zuen ardatz. Begoñako Basilikako organo-jotzaile titularra den Miriam Cepedak lagunduta eta Imanol Ormazaren zuzendaritzapean, Messe Basse, Cantique de Jean Racine eta Requiem-meza abestu zuten. Entzuleek oso gustora hartu zituzten. Errezitaldi hau eskaintzen jarraituko dute maiatzean Bilbon, bertako hiru eliz enblematikotan: Begoñako Andra Mariren Basilikan datorren maiatzaren 10ean, Aita Jesuiten Egoitza-elizan 17an eta 25ean Santiago Katedralean, Alde Zaharrean. Kontzertu guztiak arratsaldeko 8etan izango dira.*

***Musika Eskolako Bandak eta txistu-ikasleek,** bere 50. urteurrena ospatzeko San Nikolas ikastolak antolatutako ekitaldietan hartu zuten parte. Errezitaldia joan den apirilaren 27an, ostirala, eskaini zuten, Algortako Metroko Plazan. Bi Zentroen arteko elkarlana sendotuz doa, ikasturte honetan ere, Euskara Eguna dela eta, abenduan errezitaldia batera egin ondoren. Oso kontzertu hurbila izan zen. Guztion ondo egiteari, "zerbait berezi" hura bildu zitzaion, inplikazio afektibo berezia, Bandaren kide asko Ikastolako ikasleak edo ikasle ohiak baitira. Entzuleen aldetik izandako harrera izugarria izan zen; ederki gozatu zuten (aurrez ikusita ez zegoen bat-bateko bisa egin behar izan genuen) eta eguraldi okerrak ezin izan zituen parte hartzeko eta ospatzeko gogoak garaitu. Aipatzekoak dira ere Itxaso eta Xabi Paia bertsolariekin izandako elkarlana, beti bikaina, eta Biotz Alai abesbatzarekin izandako esperientzia ederra.*

## Hileko egutegia

Maiatza

| a | a | a | o | o | l | i |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

Jai-egunak
Eskolaren jarduerak
Jarduerak jai-egunetan

## Agenda

### Mayo

**Maiatzak 3:** Kontrabaxu-ikasleen entzunaldia. 18:45ean, Musika Eskolako Entzunaretoan.

**Maiatzak 4:** XI Udaberri Musikalak. 20:00etan Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera. 8 €

**Maiatzak 9:** Txistu-ikasleen emanaldia. 18:30ean Getxo Elkartegian.

**Maiatzak 10:** Biolontxelo-ikasleen errezitaldia Musika Eskolako Entzunaretoan.

**Maiatzak 14:** Flauta-ikasleen errezitaldia. 18:30ean Getxo Elkartegian.

**Maiatzak 16:** Klarinete- eta saxofoi-ikasleen emanaldia. 18:30ean Getxo Elkartegian.

**Maiatzak 17:** Gitarra-ikasleen errezitaldia Musika Eskolako Entzunaretoan.

**Maiatzak 18:** Zozoak Abesbatzaren errezitaldia. 20:00etan Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

**Maiatzak 21:** Piano-ikasleen errezitaldia. 18:30ean Getxo Elkartegian.

**Maiatzak 23:** Tronpa-, tronpeta-, tronboi- eta tuba-ikasleen errezitaldia. 18:30ean Getxo Elkartegian.

**Maiatzak 24:** Biolin- eta biola-ikasleen emanaldia Musika Eskolako Entzunaretoan.

**Maiatzak 28:** Piano-ikasleen errezitaldia. 18:30ean Getxo Elkartegian.

**Maiatzak 29:** Ikasle helduen emanaldia. 18:30ean Getxo Elkartegian.

**Maiatzak 30:** Piano-ikasleen errezitaldia. 18:30ean Getxo Elkartegian.

**Maiatzak 31:** Perkusio-ikasleen emanaldia Musika Eskolako Entzunaretoan.